AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1323

AGINDUA, 2013ko otsailaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Ana Isabel Valenciaga Zugasti andrea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Bizkaiko Hezkuntzako lurralde-ordezkariaren kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Ana Isabel Valenciaga Zugasti andrea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Bizkaiko Hezkuntzako lurralde-ordezkariaren kargutik kentzea (512076 kodea, 4 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek 2013ko otsailaren 27tik aurrera hartuko du indarra.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 26a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.